

Orotarik

Maiatzako hilabetea aberatsa da, ospakizun aunitz baxter guzietan. Gure eskualdean ere bada zerbait ospatzeko. Urtero bezala aurten ere ospatu da Maiatzeko 3-an Santa Kruz eguna eta Legateko Gurutzean Meza Aita Karlosek emana. Beti bezala lehenik Gurutz-Bidea otoitz eta kantuekin eta ondotik Meza. Aurten yende guti bildu da, astelegune alde batetik eta haize hotza bertetik beti ere eguraldi bortitza mendi hortan ibiltzeko. Gan zirenak badute merezimendu eta erakutsi dute Gurutzea maite dutela.

□ □ □

Maiatzaren 7-a egun aipagarria Elizondan. 51 neska-mutil hartu zuten Sendotzako Sakramentua. Iruñeko Yaun Apezpikuaren Ordezkarria hemen ginuen eta Elizkizuna guziz ederra izan ginuen. Eliza bete bete, hor ziren ere neska-mutilen gurasoak eta familioak. Euskara eta erdara erabili zen baina euskarari indar gehiago emanik. Elizkizun hunkigarria. Zorionak Sendotzako Sakramentua hartu zuten guzietan.

□ □ □

Bestaz besta gabilta, Nafa-

rroareen eguna gan orduko bertze besta bat eta haundiagokoa, Senperen ospatu den «Urrats Eguna» Maiatzaren 14'ean sekulako yendetza bildu zen Senperen, 80.000 lagun erraten dute-nez. Euskalerriko xoko guzietatik bildu ziren «Urrats Eguna» ohore guziekin ospatuz. Iparaldeko Ikastolen alde lan haundia eginik Senperen bildu ziren euskalza-leak ahal guztia eginik sos-laguntza guzien gañekoa izan da. uc2

Aurtean Maiatzaren 21-ean etorri zaiku San Migel Aingerua eta ohiturari yarraizik eta zaletasun haundia erakutsirik bildu da yendea gure Zaindariaren inguruan. Elizkizun ederra eta eliza bete bete, Saindua gurtuz eta bihotzez eskatuz Euskalerria zaindu dezan.

□ □ □

Salbatoreak Iruiteko bestak 25-28 egunetan, Baztango lenbiziko bestak eta badute errekista yendea biltzen da. Erran dezadan ere Urdazubikoak Salbatoretan direla eta hemen ere izaten dela mugimendu. Beti ere Iruite ta Urdazubiko bestak zoriontasun osoan pasa daitezila.

M. Izeta

Ruben Belouqui txapeldun

Baretu dire istillu guztiak. Moteldu dire zalapartak. Baita isildu ere eztabaida ta esamesak.

Iritxia dugu beraz, Orrillaren 20'ean Donosti'n Amara'ko pelotalekuan jokaturako partidua ederrari begiraldi paketsu bat emateko garaia.

Azkeneko zokoraño ijuslez beterik, dotore agiri zan donostiarren frontoi txujuna. Bazuen noski zertaz dotore ta txukun agertu; eusko-pelotaren urteroko kai-egunik aundiena bertan ospatzen bait zuen! Orain arte «Anoeta Pelotalekua» izen dena, emendik aurrera «III Atano Pelotalekua» izenen da ba.

Merezi zuen orrenbeste Mariano Juaristi «III Atano» azkoitiarrak. Izen dugun pelotaririk aundienetakoa izen bait da bera. Aundiena askoren iritziz, Nik ordea, bein beño geiagotan idatzi izen dut «Naparroa'ko Egunkari» ontan bertan, nere ustez, orduango eta oraingo baldintza edo kondizio guztiak gogoan arturik, esjuz-eskularik onena II Retegi izen dela.

Ori esatean, ez diet lengo pelotari aundiei, III Atano berari batez ere, -aren aurreko «Mondragones» apika ezagutu nuen-, eta aren dianavondorengo Gallastegi eibartarrari zor zaien eraspenik urratu nai, bañan ez diot Gaillen ere Nere Ustez berea duenik ukatu nai: Bera izen dela denbora guztietako eskuz-eskularik aundiena... orain arte.

Emendik aurrera... kendujo ote dio garaitasun ori Ruben Beloki gazteak? Orril onen 21'az gero, bera izengo bait dugu urte sail luze batez txapeldun, naigabekorik deus gertatzen ez ba'zaio.

Alare, dem alátza izen zuen larunbat ortakoa, Iñaxio Errandonea'ren aurka. Eta aitortu bear dut emen nere barrunbeto gogoetatxo izkutu bat. Arriturik nengoen Iñaxio'k aidez, besapez, eta botez, bere burua zeñen ederki babesten zuen ikusiz. Pozez beterik ikusi nintuen bere bi ormetako bikain aiek. Eta 8 ta 12 galtzen egotetik 15 eta 12 irabazten egotera nolako ziurtasunez joan zen ikustean, uste izen nuen dema irabazi zezakeela, eta, egia esan, -barkatu Ruben-, berak irabaztea eta txapeldun bera iritezta nai izen nuen nere gogo guztiz. Pelotari bikaña delako marezi zuen Iñaxio'k txapela. Zuk, Ruben, 20 urteko mutikoa zeralako, baduzu txapeldun izeteko astirik naiko.

Partidu ederra egin ziñuten, Ruben, baña zuk ez ziñun bear bezala jokatu. Egokitasun aundiak izen zenituen jokua askoz errezago irabazteko, baña ez ziñen egokita-



sun oietaz baliatu. Gañiera, egin zenituen utsak, ez dire lenen malleko pelotari batenak. Ez zera oraindik pelotari, Ruben, Baña izengo zera. Iñor ez bezalako gaia bait duzu ortarako: Txukuna, elegantea da kantxan ibiltzeko ta pelota jotzeko zure modua. Iñork ez bezalako bi beso indartsu dituzu, bai botez, bai aidez eta bai besape edo «sotamanoz» aritzeko ta badu duzu bi-ormetako jokua- ren ezaguera. Izengo zera, Ruben, pelotaririk bikaña, Julian Retegi'ren ikasbidea jarraituz, zur burua bear bezala zaintzen ba'duzu.

Zu izengo zaitugu urteetan eta urteetan txapeldun. Emendik, 16 urtera, zuk 36 urte izengo dituzu, pelotan jokatzeo adiñik ederrena. Zu izengo zera txapeldun. Baita emendik 20 urtera ere! Baña zure burua arretaz zaintzen eta geiegikeririk gabe estu lotzen ba'duzu. Zure andregaiari eskañi zeniozun txapela. Zure burua gogr zaintzeko ortan, badu neskatz orrek zeregin galantik. Zuri bezala, Ruben, nere zorionik beroenak bidaltzen dizkiot ezagutzen ez dutan andereño gazte orri, eta, pelotazale guztion onerako, zu zaintzeko ortan aulegia ez izeteko eskatzen diot.

Latiegi'tar Bixente

Euskal itzak Andola'n (Andosilla)

Orain dela gutti, Andola'ko euskal giroa agertzen genuen izparringi onetan bertan (1995-I-22). Gaur berriz, bertze zerbait erran nai dugu.

Ba dago gizon eldua, Jesus Pagola, Andola'tarra, bertan jaioa eta azia, asmo on bat izan duena. Berez sortu zaio, errian entzundako euskal erroko itzak biltzea, eguneroko erdal elkarizketan erabiliak. Aspaldi asitako lana da, poliki poliki egiña. Aur-tzaroan erraten ziren itzak gogoratu bear eta gañiera, baita jakin euskara izkuntzatik datoztela; gero itzek zerrrenda batean banaka jaso, aztu gabe. Lana benetan polita ta etorki-zun aundikoa.

Andola erria, naiz Ibero ibai nagusitik urbil izan, ba ditu sendi aunitz euskal abizenekin. Sarrera gisa erranen dugu urrutizkiñako liburuan agertzen diren Andola'ko euskal sendien izenak; den denak 704 dira, euskaldunak aitaren edo amaren aldetik 350, eundik berrogeitabederatzi. Ikusten dugunez sendi askok ba dauzkate euskal aztarnak.

Asieran aipaturiko euskal erroko izen zerrrenda ementxen datorkigu:

Toki izenak:
«Cuesta de la Amofia» = erri gai-ñean
«Unson» = Mendia Lerin aldera
«Zubirte» = Iturria Falces aldera
Gizagaiak:

«Amofia» = aur txikiei beldurra emateko erabilia
«Arrebucha» = Nastua
«Chandrio» = gaizki egiña
«Chirgo» = gaiztakeria
«CHURI» = illean eramaten den zapi zuria
«NAKO» = gizon ustela
«Narro» = Itxura txarrekoa
«Norro» = Gaizki ikusia
«Pantasma» = Ameskari
«ZAMINA» = Zigorrada Bizidunen gaiak:
«Bizque» - Suge mingaiña
«Cirria» = Ardizikiña
«Gardacho» = Muskerra
«Gardama» = Arrak
«Micharra» = Muxar
«Sarandilla» - Muskerkume

Lanmdaregaiak:
«Aragolla» = Landarea arantzez bete
«Arañon» = Baxaranak
«Barda» = Sasia
«Corrusco» = Ogi zatiaren ertzea
«Coscorro» = Artalepoa
«Charada» = Su andia
«Chinchorra» = Koipearen zati lodiak
«Junza» = Alkiak egiteko landa-rea
«Ilaga» = Arantzazko sasia
«Maragolla» = Landarea igali gorriekin
«Marañon» = Basakarana

«Ollaga» = Sasia
«Sardon» = Landare adarrez be-tea
«Zaborra» = Landare galduak
«Zarria» = Aberen ille zikiña
«Zurrapa» = Uraren zikiña

Gauzak:
«Espondon» = Arpea
«Garramincha» = Sare itxia arantzarako
«Zakurro» = Egur zatia
«Zakuto» = Pardela
«Zambullo» = Zambulua (columnio)

«Zarata» = Loi mea
Aurren jolasak:
«Luriqui» = Zapi bilduarekin jotzeko jolasa.
«Zurrun butun buta butera zurriki fuera» = (Aukeratzeko, izendatzeko edo ordaintzeko jolasak).

Euskal itzen erroko ditugu emen, euskara biziaren aztarnak, gaur arte iraun dutenak.

Nor dugu Jesus Pagola, itz zerrrenda onen egilea? Andola'n jaioa da 1929'garren urtean. Emen bizi zen amabi urteak bete artea (1942). Ikasketak egin ondotik, Iruña'n asi zen lanean eta an bizi da geroztik.

Jesus Pagola, euskalzalea dugu: Kanpion osorik irakurri du.

Lan onen ereduak, Nafarro'ko toki aunitzetako argi andia ematen du.

Latxaga

Albiste laburrak

Jakintza alorreko «Principe de Viana 1995» saria, Julio Caro Baroja'rentzat izan da. Bi milioi peztakoa da, eta urtero ekaiñaren azken igandearen Leire'ko Abatetxean Naparroa'ko Erregeei egin oi dan omenaldian emango zayo. Besteak beste, gizarte alorreko «Principe de Asturias» (1983), «Naparroa'ko Seme Kutturi eta Urrezko Domiña» (1984) sariak berekin ditu. Ondo me-rezitako saria, benetan. Zorionak!

□ □ □

Arive'n orain 82 urte jayo eta 65 urtetan

Venezuela'n ezkuntza lanetan, batez ere izadia, inguru-giroa eta gizarte gayetan ainbat lan egindako Pablo Mandazen La Salletarra, Unesco'k bi urtetik bein eman oi duan «Sultan Qabús» saria irabazteko aukerarekin da. Saria, agiri-az gain, 20.000 dolarrekoa da.

□ □ □

Irutzun'dik Andoaín'a iriki berria dan autobia, uste baño jende geyagoren-tzat gogokoa da; igandeetan 14-16 mila berebiri ibilli dira eta aste eguneetan, 9-10.000 mila. Ain errepede menditsua

Berri ona

Zerukoa eta lurrekoa: Biak

«Zuek zerate gauza auen testigu» (LK. 24,46-53)

ERLIJIO eziera gero ta kaskarragoa da bai eskoletan, bai ikastetxeetan. Parrokietan ere naiko lanak badira bear bezelako fede eziketa ematen.

Zer esaten ote dio jendeari Igokunde edo Aszentzio jaiak? Zer ulertzen ote du gertaera ontaz gaurko gazteak? Eta nola bizi du kristauak?

Pazkoa eta gaurko jaia, Igokundea, alegia, biak lotuta daude. Jesus aintzatua eta goratua izan da; Jainko Aitak aintzatu ta goratu du.

Gora igotzeak ez du erran nai umezurtz Jesus-ek utzi gaituenik. Jesus gora igoa izan arren Arek asitako lana eta ekintza dira guk osatu bear ditugunak. Beraz, ez gaitezen geldi egon eskuak tolestatuta.

Emen badago zer egiñik; emen badugu zertan jardunik. Auxe idatzi zuen Vietnam-dik ies egin zuen soldadu batek: «Or ibilli giñen munduan zear igeslarien modua babes billa, ala ere bizitzaren aunditasunean sinesten genuen Jaungoikoaren maitasunean sinesten genuelako».

Musulman erlijioan bada antzeko ipuin bat: Bazen emakume bat esku batean ur-ontzia eta bestean argia zituela erriko kaleetan ibilli oi zena. Alako batean galdetu zioten: Zeren billa zabiltza? Eta erantzun zien: Suarekin zerua sutu nai dut; urarekin, berriz, infernua itzali emendik aurrera ez bat eta ez bestea itzezin ez dezagun.

Gure artean ere ez da asko itzegiten ez zeruaz, ez da ere infernuaz. Jainkoaz ere ez da geiegi jendea mintzo. Gizakiari buruz asko mintzo gera, giza-eskubideetaz ere bai. Jainkoa zerura igoa izanagatik, gure artean jarraitzen du; orregatik bearrezkoa zaigu norbaitek Jainkoaz ere itzegitea.

Lurreko gauzetaz arduratzea bakarrik ez da naikoa. Arduratu eta konpondu egin bear dira. Orrek ez du esan nai lurreko gauzetaz bakarrik arduratu bear dugunik, Jainkoa aazturik. Asko dira munduko gauzak Jainkoa baiño maiteago dituztenak. Lana, dirua, ondasunak, aberastasuna, ongi izatea, erosotasuna... dira inportanteak. Eta Jainkoa? Zerura igo denez, dagoela bertan, pakean!

Erosotasunean bizi nekeza da Jesus-en testigu leiala eta zintzoa izatea. Erosotasuna bearrezkoa du gizakiak munduari gero ta gauza obeagoak eta errezagoak eskaintzeko; erosotasunaren menpean jarri ezker, ordea, gizakiak bere burua galbidera eramaten du.

Gizakiaren bizieta ez da mundualdi ontakoa bakarrik. Geroan ere badu parterik emen bizi den gizon-emakumeak. Eta bien arteko oreka ori lortu arte, ez du gizakiak atsedeenik eta baretasunik izango. Jainkoa aazteraiño munduari emanda bizi denak, etorkizunaren berririk ez du izango. Mundua aazteraiño Jainkoari emanda bizi denak, berriz, urkoa maitatzeko aalmena galdu du.

Guztiok osotasunaren billa gabilta: aurrak elduak izan nai dute, gazteak ez dute zaartu nai, nagusiak, berriz, emen betiko bizi nai dute. Agintaritzaren bidea artu dutenek leenbaitlen mundu osoaren jaun eta jabe izan nai dute. Gorputzaren edertasuna gorde nai dutenak diruak kastatzen dituzte aalegin ortan.

Jesus-ek maitasuna bizitzeko aukera egin zuen eta maitasuna bearrezkoa zela iragarri. Eta ori da guretzat jarri eta ireki zigun bidea. Jesus zerura igo arren, badugu nun lan egiñik eta badugu biderik egiteko.

Artzalluz'tar Joxemari